

Bestelako Xedapenak

INDUSTRIA ETA BERRIKUNTZA SAILA

3775

AGINDUA, 2009ko ekainaren 15ekoa, Industria eta Berrikuntzako sailburuarena, 2009ko ekitaldiari dagokionez, merkataritzako aholkulari teknikoak prestatzeko bekak emateko deialdi publikoa egiteko dena.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2000ko ekainaren 6ko Aginduaren bitartez, merkataritzako aholkulari teknikoak prestatzeko beken programa arautzen da (2000ko ekainaren 21eko EHAA, 117. zenbakia). Agindu hori aldatu egin zen, 2003ko ekainaren 11ko beste batez (2003-06-20ko EHAA, 121. zk.).

Diru-laguntza horiek emateko erabiliko diren diru-baliabideak Euskal Autonomia Erkidegoaren 2009ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorretan horretarako izendatutako aurrekontu-ataletatik aterako dira; ekitaldi honi dagokionez, abenduaren 29ko 19/2008 Legean dago ezarrita hori arautzeko modua.

Aipatutako Aginduaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, egoki da, hor iragarritako diru-laguntzak emateko, 2009ko ekitaldirako deialdia egitea, eta, horretarako, eman beharreko arau guztiak ematea.

Horrenbestez, aipatutako aginduaren 6. artikuluan ezarritako ahalmena erabiltza, honako hau,

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Helburua.

Merkataritzako aholkulari teknikoak prestatzeko beken programa arautzen duen Aginduan diru-laguntzetarako, 2009ko ekitaldiari dagokionez, deialdia egitea da Agindu honen helburua.

Helburu hori betetzeko, 375.000,00 euro bideratuko dira, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan berariaz arlo horretarako izendatutako aurrekontu-kredituaren arabera. Zenbateko horretatik 37.500,00 euro 2009ko ekitaldiko ordainketei dagozkie; eta gainontzeko 337.500,00 euroak 2010eko ekitaldiari egotzitako epemugetarako erabiliko dira.

Gehienez ere, 2009ko ekitaldian, hogeita bost (25) beka emango dira, eta hamabi hilabeteko iraupena izango dute.

1. artikulua.– Betekizunak.

Merkataritzako aholkulari teknikoak prestatzeko beken programa arautzen duen Aginduko diru-laguntzak

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA E INNOVACIÓN

3775

ORDEN de 15 de junio de 2009, del Consejero de Industria e Innovación, por la que se hace pública la convocatoria de concesión de becas para formación de Asesores Técnicos en Comercio para el ejercicio 2009.

La Orden de 6 de junio de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, regula el programa de becas para formación de Asesores Técnicos en Comercio (BOPV n.º 117, de 21 de junio de 2000). Esta Orden fue modificada por otra de 11 de junio de 2003 (BOPV n.º 121, de 20 de junio de 2003).

Los recursos económicos destinados a la concesión de las citadas ayudas procederán de las correspondientes partidas presupuestarias establecidas en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2009, cuya regulación para el presente ejercicio se establece en Ley 19/2008, de 29 de diciembre.

De conformidad con lo establecido en el artículo 6 de la citada Orden, procede realizar la convocatoria de las ayudas que en el mismo se establecen, para el ejercicio 2009, dictando a tal objeto las normas necesarias.

Por lo expuesto, en virtud de la facultad establecida en el citado artículo 6 de la Orden de referencia,

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

Es objeto de la presente Orden la convocatoria, para el ejercicio 2009, de las ayudas previstas en la Orden por la que se regula el programa de becas para formación de Asesores Técnicos en Comercio.

Para este fin se destinará un total de 375.000,00 euros según el correspondiente crédito presupuestario establecido al respecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. De este importe, 37.500,00 euros corresponderán a pagos para el ejercicio 2009; y los restantes 337.500,00 euros se destinarán a vencimientos imputables al ejercicio 2010.

El número máximo de becas a conceder en el ejercicio 2009 será de veinticinco (25) y el período de duración de las mismas será de 12 meses.

Artículo 2.– Requisitos.

Los solicitantes para poder acceder a las ayudas previstas en la Orden por la que se regula el programa de

jaso ahal izateko, eskatzaileek, agindu horren 3. artikuluan ezarritako betekizunak konplitu beharko dituzte.

Horretaz gain, diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galduta administrazio-zehapenik edo zehapen penalik duen ala ez egiaztatzeko deklarazio aurkeztu beharko du eskatzaileak, eta bai aipatutakoak eskuratzeko ezgaitzen duen legezko galarazpen bat ez izateari buruzkoa ere. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeko azken xedapenetatik seigarrenean xedatutakoaren arabera, sexuaren inguruan egindako diskriminazioen ondoriozkoak ere aipatu galarazpenen barruan sartu behar dira.

3. artikulua.– Eskabideak eta epea.

1.– Eskabidea egiteko eredia Eusko Jaurlaritzako Industria eta Berrikuntza Saileko lurralde-bulegoetan jaso daiteke, eta interneteko helbide honetan ere bai: www.eragintza.net.

2.– Eskabide-orria eta gainerako agiri osagarriak Eusko Jaurlaritzako Industria eta Berrikuntza Saileko Merkataritza Zuzendaritzari zuzenduta bidali beharko dituzte, eta, aurkeztu, Industria eta Berrikuntza Sailaren Lurralde Bulegoetan aurkeztu behar dituzte, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako lekuetan.

3.– Eskabideak aurkezteko epea 2009ko uztailaren 31n bukatuko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Deialdi ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Bigarrena.– Agindu honen aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Industria eta Berrikuntzako sailburuari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hara.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 15a.

Industria eta Berrikuntzako sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

becas para formación de Asesores Técnicos en Comercio, deberán reunir los requisitos establecidos en el artículo 3 de la misma.

Asimismo, el solicitante deberá aportar una declaración responsable sobre si se encuentra sancionado penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas o si se halla incurso en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello con inclusión de las que se haya producido por discriminación de sexo, de conformidad con lo dispuesto en la disposición final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres.

Artículo 3.– Solicitudes y plazo.

1.– Un modelo de solicitud será facilitado en las Oficinas Territoriales del Departamento de Industria e Innovación del Gobierno Vasco, y en la dirección de Internet: www.eragintza.net.

2.– Las solicitudes y demás documentación complementaria deberán dirigirse a la Dirección de Comercio del Departamento de Industria e Innovación del Gobierno Vasco, presentándolas en las correspondientes Oficinas Territoriales de Industria e Innovación de cada Territorio Histórico, o en cualquiera de los lugares especificados en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– El plazo de presentación de solicitudes finalizará el 31 de julio de 2009.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Orden de convocatoria surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Orden podrá interponerse recurso de reposición ante el Consejero de Industria e Innovación del Gobierno Vasco, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 15 de junio de 2009.

El Consejero de Industria e Innovación,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.